NAPARPELLETEK ESKAINIA

# Europako pelletik onena Nafarroan ekoizten da, tokiko 32 lanpostu sortzen dituen enpresa batean: **Naparpellet**






Alfredo Martínez, Naparpelleteko zuzendari komertziala.

Nafarroako enpresa, Etxarri Aranatzen kokatua dagoena, historikoa da inguruan, 1960an sortu zen Cerámica Utzubar enpresa nagusiarekin hasi baitzen. 2009az geroztik, pelleta eta ezpala ere ekoizten ditu, eta erreferente bihurtu da Europan, duen kalitateagatik. Bisita baten eta bidaia baten artean, Alfredo Martínez Naparpelleteko zuzendari komertzialak bere ezagutza tekniko guztia erakutsi du, handia dena, galdera batzuei erantzuteko.

**Zeri egozten diozu Naparpelleten garapen ona?**

Badaude sektore osoari mesede egiten dioten kanpo-eragileak, hala nola beste energia-iturri batzuen prezioaren igoera edo erregai jasangarrien erabilerari buruzko kontzientziazio handiagoa. Baina, gure kasuan, arrakasta bi alderdi argitan datza: produktuaren kalitatean, eztabaidaezina baita; eta gure zerbitzuan. Instalazioen diseinuari eta mantentzeari buruz dugun ezagutza gehitzen dugu, balio- eta arreta-plus bat eskaintzeko. Horrez gain, zuzeneko hornidura kudeatzen dugunean, kalitate eta profesionaltasun handienarekin egiten dugu.

> GURE BEZEROEN LEIALTASUNA GUSTATZEN ZAIGU, KALITATEA ETA ZERBITZUA BESTE EZEREN GAINETIK BALORATZEN BAIDUTE
>
> *ALFREDO MARTÍNEZ*

Gure enpresarekin lan egiten duenak badaki deitzen duenean behar duenarekin erantzungo diogula: laguntza, aholkularitza, hornidura, seriotasuna eta bermea. Instalatzaileen eta estudio edo ingeniaritzen kasuan, askotan orientabideak ematen dizkiegu, esate baterako, proiektuak behar bezala diseinatuta eta dimentsionatuta egon daitezen, bezeroarentzako albait eragingarritasun eta aurrezpen handienarekin. Partikularrekin, siloen dimentsionatzeei eta mantentze-lanei buruz aholkatzeko edo eskaerak gurekin planifikatzeko, prezio hobeak lortzeko.
Gure bezeroen fideltasuna gustatzen zaigu, beste ezeren gainetik kalitatea eta zerbitzua balioesten baitute.

**Pelleten kalitateaz ari garenean... Zeri buruz ari gara?**

Ziurtagiriei dagokienez, Naparpelleten Europako lehenak izan ginen guztiak izaten; ENPlusA1, DINPlus, PEFC, ISO 14000, Karbono Aztarna, Biomasud... Gure produktu eta hornidurarako auditoretzarik zorrotzenak gainditzen ditugu, eta eskatzen dizkiguten gutxienekoak baino askoz emaitza hobeekin egiten dugu. Gure webgunean datu guztiak ikusgai daude kontsultatu nahi dituenarentzat. Baina pertsona askorentzat errazagoa da argi azaltzen dugunean: Gure pelleta % 100 pinu zerrautsarekin egiten da, errekuntzari kalte egiten dioten edo instalazioa hondatzen duten hondakinak sortzen dituzten gehigarririk eta azalik gabe. Horrez gain, oso lehor dagoela bermatzen dugu (arauaren % 40 azpitik), eta hori funtsezkoa da gutxieneko errautsekin (arauek diotena baino % 25 gutxiago) ezin hobeto su hartzeko. Horri esker, bero-ahalmen handia duenez, errendimendu bikaina du, eta horrek aurrezpen handiak sortzen ditu pellet-erosketan.

**Zein da Naparpelleten bezeroen profila?**

Pelletaren eta ezpalaren erabilera oso zabalduta dago etxebizitzetan (etxe partikularrak edo auzokoen erkidegoak) eta industrian (fabrikak, bulego- edo egoitza-eraikinak, eskolak, kirol-zentroak...). Guk guzti-guztiei ematen diegu zerbitzua. Solteko zuzeneko hornidura fabrikatik gure kamioi pneumatikoekin; edo fabrikatik saltzen diegu beren kamioiekin datozen banatzaileei; edo zakuan hornitzen ditugu banaketa-enpresak beren salmenta-puntuetarako (askotariko formatuetan).

**Kalitateak ate asko irekitzen dituela pentsatzen dugu. Noraino iristen da zuen pelleta?**

Asko laguntzen du gure pelleta Europako galdara eta berogailu fabrikatzaile nagusiek gomendatzen dutela (OKOFEN, Hargassner, Edilkamin, Herz, Piazzetta, Ungaro, Ferlux, Lasian...).
Gure zuzeneko hornidurarekin Nafarroa osoa, Euskadi eta Errioxa hartzen ditugu (oso produktu jasangarria da, Km0 zerrautsarekin ekoizten dugulako). Herrialdearen erdialdean eta iparraldean oso zabalduta gaude. Eta Europan, banatzaileen bidez, Frantzian, Andorran, Italian, Belgikan, Alemanian eta Luxenburgon gaude. Eta hazten jarraitzen dugu!
Bulegoan, gure produktua Europako zein puntutan eros zitekeen seinalatzen hasi ginen mapa batean. Mapak gero eta txintxeta gehiago zituen, eta laster eremu batzuk erabat estalita zeuden. Mapak hor jarraitzen du eta irribarre zaal bat marrazten digu lantalde osoari.

naparpellet
PELLETA EDO EZPALA
BEHAR AL DUZU
ZURE BEROGAILU EDO
GALDARARENTZAT?
www.naparpellet.com




SOLTEKO salmenta
Siloak betetzeko zerbitzu pneumatikoa.
Pelleta.
25 tona arteko
zisterna pneumatikoa.
Ezpala.
90 m³ arteko kamioia.
SUSTAPEN BEREZIA
%5 deskontua
Zerbitzu Pneumatikoak
EGIN ZURE ESKAERA:
naparpellet@naparpellet.com
+(34) 948 460 089 +(34) 610 568 278

Salmenta ZAKUAN
15 kg-ko 70-77 zaku palet amerikarrean (1x1,2m)
15 kg-ko 40 zaku palet europarrean (0,8x1,2m)
10 kg-ko 104 zaku palet amerikarrean (1x1,2m)
Kontsultatu gure banatzaileen SUSTAPENAK
Eskaneatu zuregandik gertuen dagoen salmenta-puntua aurkitzeko.